

ESKUALDUN IL ERRIAK



KANTUETAKO LEEN GARAIT SARIA

AIREA: *Gitarra zarcho bat det...*

Elizaren ondoan, oi Eskualdun aurrak,
Gure ilen erriak zoin diren ederrak!
An dagozi bakean aitaso zaarrak,
An ditut etzan nai nik ene ezurrak.

Kurutze, lore eta elorri churiak
Elgarrereri iosirik dira ezarriak;
Iguzkiak bezala ilargi-zariak
Ongi apaintzen ditu gure il-erriak.

Primadera goizetan etchealdetikan
Chorito bat eldu da berriz anturikan,
Berri ek salaturik obira musikan,
Badoa loreño bat andik arturikan.

Udako arratzetan zeruko izarra!
linztatuz doazi lur meta nabarrak:
Zinez erran liteke aiden nigarrak
Bilduak daduzkala il erriko lurak.

Lur pean lo dagozi gure arbazoak
Iguzkirat itzuliz zango ta besoak.
Zeru zolarat aldiz daduzkate soak
Direlakotz gelditzen Eskualdun osoak.

Igande guzietz an erria da biltzen,
Beren egitekoez ez dira ichiltzen:
Obian bereala ila da igitzen
Zeren dituen aurrak ondoan aditzen.

Elizan direlarik aurkideak sartu,
Leeneko kantuak ditu ezagutu,
Aren ezur gaichoak dira ikaratu,
Airea lur pean du berak akabatu.

Angelus erran eta buru as emanak
Il obien ondoan dagozi gizonak,
Andrekin aldiz dauzkate lurrean belaunak
Zerurat doazila otoitz karsuenak.

Ilak bakarrik dira orduan gelditzen,
Beso baten gainean oro dira iartzen:
Atseginekin dute errian aditzen
Leeneko pareta pilotak zartatzen.

I'un beltzean dira entzun irrintzinak,
Kantabre arbasoek *zinkatzen* zuztenak:
Ilak lokartu dira il-errian denak
Oikoak dagozi beti Eskualdunak!

Elizaren ondoan, oi Eskualdun aurrak,
Gure ilen erriak zoin diren ederrak!
An dagozi bakean aitaso zaararak,
An ditut etzan nai nik ene ezurarak.

BARBIER APEZA.

